

XXVII. Topaketak
"Hobekuntza Plana"



Gasteizko Mendizabala Institutua
2009ko azaroaren 19an

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. EBALUAKETA PROZESUAREN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK
3. EMAITZEN TRATAERA ETA PROPOSAMENAK
4. HOBEKUNTZA PLANAREN DISEINUA ETA PROPOSAMENAK
5. ERANSKINAK
 - Balorazio numerikoa lurraldeka
 - Ebaluazio Diagnostikoaren ondorengo egoera ikastetxeetan
 - Prentsa oharra

1. SARRERA

Jardunaldietako aztergai nagusia Ebaluazio Diagnostikoaren ondoren Ikastetxeek egingo duten Hobekuntza Plana izan da. Egoera berria bada, gaia antzinatik ari da jorratzen Ikastetxe Publikoetan, Jardunaldi hauetara bertaratu diren 142 partaideek emandako iradokizunek adierazten duten bezala.

Ebaluazio Diagnostikoa lehenengoz egin denez, eskola guztietan zabaldu da emaitzak interpretatzeko prozesu berria, familiei informazioa emateko eta kasuan kasuko hobekuntza Plana osatu eta ohiko praktikan gauzatzeko. XXVII. Topaketa hauetako jardunaren helburua prozesua erraztea izan da, taldean egindako hausnarketa eta adituen parte hartzearen bidez.

XXVII. Topaketetara hurbildu diren partaideen ezaugarriak

Jasotako galdetegiak: 48

A	B	G	zuriak
8	16	22	2

Lurraldeka banatuta

Erantzun dutenen ikastetxeak

	Eskola Txikiak	1. lerro	2. lerro	3. lerro	4tik aurrera
Araba	1	1	5	1	-
Bizkaia	1	2	6	6	1
Gipuzkoa	-	4	10	5	3
zuriak	-	-	-	-	-

Zuzendaritza Taldeak

	zuriak	lehenkoa	kideren bat berria	berria
Araba	1	3	4	-
Bizkaia		11	3	2
Gipuzkoa		10	5	7
zuriak	2			

2. EBALUAKETA PROZESUAREN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Lan-taldeetako partaideek adierazitakoaren arabera esan dezakegu ikastetxeetan begi onez hartu dela kanpoko ebaluazio hau nahiz eta kezka batzuk eduki.

Argi geratu zen ebaluazio diagnostikoa ikastetxeko ebaluazio orokorra osatzera datorrela, inondik inora egiten duguna ordezkatzera edo menperatzera; prozesuaren atal bat gehiago, besterik ez da, une eta maila zehatz baten datuak eskaintzen dituena. Gainera aurtengoak lehen isla bakarrik erakusten du, beraz, ematen zaion dimentsioa mugatu beharra daukagu.

Prozesuan nabaritu diren akatsak:

2.1- Aurretiko frogak

Froga pilotua egin zuten ikastetxeekiko begirune falta nabari da. Ez zaie emaitzarik eman.

2.2- Informazioa

- Informazioa orokorrean ez da nahikoa izan. Lurraldeetako bileretan ez da informazio berbera eman eta Berritzegune batzuetan ere zailtasunak egon dira ikastetxeei eman beharreko informazioa edukitzeko.
- Ikasleak, agente nagusiak izanda, informazio zabalagoa behar zuten, bai frogaren arrazoien inguruan bai egin behar zuten lanari buruz.
- Emaitzak azaltzeko grafikoak ulertzea zaila da nahiz eta azalpenak eman. Ikastetxeko Eskola Kontseiluari eman beharreko informazioa ez dago argi eta eskola bakoitzak bere erara egingo du.

2.3- ISEC indizearen inguruan zalantzak azaldu dira:

- Lortzeko erabili diren galdetegiak ez dira argi azaldu
- Ikasleek erantzun behar zituzten galdera batzuk ez zituzten ulertzen
- Etxetik beteta ekarri behar zituzten galdetegi asko ez zituzten entregatu.

2.4- Frogaren inguruan

- Frogaren hizkuntza aukeran jartzea ez da egokia ikusten, arriskutsua izan daiteke.

- Tutoreen presentziari buruz ere egoera desberdinak eman dira. Aztertzaile batzuk ez zieten tutoreei une batez ere gelan sartzen eta beste batzuk aldiz, zenbait frogetan hori baimendu zuten.
- Ikastetxeetara froga pasatzeko bertaratu direnen artean egoera desberdinak nabaritu dira.
 - Batzuk, ixilpekotasuna dela eta, ez zuten froga bera ezagutzen.
 - Askok ez ziren irakasleak eta ez zituzten adin horretako ikasleen ezaugarriak ezagutzen.
 - Kasu batzutan ez zuten hiztegia behar bezala zaintzen (Adibidez "examiña" hitzarekin zuzendu ikasleei une guztietan)
- Entzumen frogak ez ziren ondo entzuten.
- Batzutan froga eten egin behar zuten.
- Dislexia duten ikasleak ez dira kontuan hartu denbora gehiago emateko beste frogetan egiten den bezala (selektibitatean adibidez)
- Eskola batzutan froga ezagutzen zutela adierazi da.

Prozesuari buruzko proposamenak:

1. Pilotu lana egin duten ikastetxeekiko begirunea adierazi.
2. Informazioa hobetu:
 - Prozesuan parte hartzen duten guztiei sasoiz informazio zabala eta argia eman
 - Informatzaile guztiak informazio berbera eta zuzena emateko prestatuta egon.
 - Ikastetxeetara pausu bakoitzeko prozedura idatziz bidali.
 - Grafikoak ulertzeko azalpen gehiago eman edo grafikoak sinplifikatu
3. ISEC indizearen osaketari buruzko ezagupena zabaldu
 - Indizea lortzeko erabiltzen diren galdetegiak eskura jarri
 - Galdetegiak ulergarriak diren ziurtatu
 - Taldeetako ikasle guztien galdetegia jasotzen dela ziurtatu
4. Frogaren inguruko arloak hobetu
 - Hizkuntza aukeran ez jarri. Ereduak markatzen duenaren arabera jokatu.
 - Ikasleen egoera emozionala zaintzeko tutorearen presentzia

ez debekatu.

➤ Aztertzaileen formazioa ziurtatu. Bai frogaren ezagupenari baita ikasleen ezaugarriei dagokiena.

5. Entzumen frogak eduki behar duen kalitatea badaukala
Ziurtatu
6. Denbora gehiago behar duten ikasleak kontuan hartu
(dislexia dutenak...)

3. EMAITZEN TRATAERA ETA PROPOSAMENAK

Emaitzak interesatuengana helarazteko erabilitako moduan hutsunek nabaritu dira:

- Txostenak lortzeko sistema oso txarra izan da, gehienetan ezinezkoa izan da.
- Grafikoak ez dira ulerterrazak izan.
- Gurasoei emaitzak ezagutarazteko prozedura ez da zehaztu, kontrako informazioa eman da batzutan eta azkenean erantzukizun osoa ikastetxeen gainean geratu da. Honek pikutara bidali ditzake "rangkinak" ekiditzeko egin diren ahaleginak.
- Organo Gorenari (OOG) eman behar zaion informazioari buruz zalantzak daude.

Proposamenak:

- 3.1 Ikastetxeetara emaitzak bidaltzeko sistema benetan funtzionatzen duela ziurtatu
- 3.2 Grafikoak ulertzeko informazio gehiago eman.
- 3.3 Ikastetxe guztietan gurasoei emandako azalpenatan prozedura berdinak aplikatzen direla ziurtatu.

4. HOBEKUNTZA PLANAREN DISEINUA ETA PROPOSAMENAK

XXVII. Topaketetako partaideen iritziz **hobekuntzarik nagusiena klaustroetan ezarriko den eztabaida aukera izango da**. Ebaluazioa bere mugen artean jarri ondoren emaitzen azterketaren aitzakia dela, **irakaskuntza prozesuari buruzko eztabaidak sortu behar dira ikastetxeetan**. Garrantzitsuenetarikoa, zalantza barik, metodologiarena izango da.

Lan-taldeetan hobekuntza Planari buruz egindako gogoeta:

4.1 Galdera batzuk azaldu dira:

- Noraino egin dezakegu eskolako Hobekuntza Plana urte bateko emaitzekin?
- Konpetentziak lantzen hasi garen unean ebaluatu behar ditugu? Ez litzateke hobea izango aurretik konpetentzien inguruko hausnarketa eginda edukitzea?
- Posible izango al da gauza biak batera egitea?
- Konpetentziak lortzeko metodologia aproposa aplikatzeko egokia al da gaur eguneko arloen banaketa?

4.2 **Hobekuntza Plana egiteko ikastetxe osoko irakasleen inplikazioa**

behar da. Horretarako geure buruari denbora eman behar diogu, prozesu berri guztiek dakarten antsietate puntua baztertuz. Hobekuntza Plana diseinatzea berria bada ere ohituta gaude gure lana ebaluatzen . Beraz, kanpoko ebaluazioaren emaitzak osagarriak izango dira eta beste ikuspuntu bat erakusten dutelako aberasgarriak.

Ikastetxean denborak antolatu behar ditugu, hobekuntza plana diseinatzeko lan taldea biltzeko eta irakasle guztien arteko gogoetak egiteko .

Hobekuntza Plana diseinatzerakoan, ikastetxearen egoera kontuan hartuta, **galderak egin behar dizkiogu geure buruari**. Hobekuntza proposamenak aukeratzerakoan guk eragina dugun esparruak aukeratuko ditugu, hobekuntza zehatzak, burutu daitezkeenak eta ebaluatzeko modukoak. Hau hasiera pauso bat da eta ikasturtero hobetzen eta sendotzen joango gara. Hobekuntza Planak egiteko lehen ikasturtea denez malgutasuna eskatzen da.

4.3 Elkarlanean aritzeko asmoarekin emaitzak guraso eta inguruko ikastetxeekin konpartitzea eta aztertzea aberasgarria dela aipatu da.

Garrantzitsua izango da DBHko emaitzak aztertzeko Bigarren Hezkuntzakoekin harremanetan egotea.

4.4- Ikastetxeetan, Hobekuntza prozesu luze eta amaitugabe bezala hartzen da eta XXVII. Topaketetan parte hartu dutenek hobekuntza nagusienak ondoko esparruetan ikusten dituzte:

- Antolakuntza eta funtzionamendu arloan:
 - Koordinazioa indartzea: zikloak, mailak, etapak...
 - Hausnarketarako uneak izatea
 - Laguntza Zerbitzuen eraginkortasuna aztertzea
 - Erabakiak hartzeko tresnak adostea
 - Gurasoen partaidetza bideratzea
 - Baliabideen erabilpen eraginkorra lortzea

- Curriculum eta metodologia eremua:
 - Konpetentziak hobetzeko metodologia aztertu.
 - Proiektuetan oinarritutako metodologia ezagutu
 - Metodologia bateratzea
 - Ikasle eta irakaslearen papera irakaskuntza prozesuan
 - Ebaluazio eta auto ebaluazioaren balioa
 - Hizkuntzen trataera bateratua

- Irakasleen formakuntza atalean:
 - Konpetentziak praktikan jartzeko orientabideak
 - Metodologia desberdinen ezagupena
 - Hizkuntzen trataera bateratua diseinatzeko ezagupena
 - Ikasketa kooperatiboa praktikan jartzeko eginbeharra

Proposamenak:

- Denbora hartu prozesua eta Plana lasai egiteko.
- Ikastetxeetan eztabaida sakonak egiteko aukera aprobetxatu aurrera begira erabakiak hartzeko.
- Bailara bakoitzeko beste eskolekin bildu, emaitzak aztertu, eta ondo dagoenetik ikasi.
- Ikastetxeei baliabideak eman hobekuntza prozesua gauzatzeko, batez ere denbora eta formakuntza.

OHARRA

Hobekuntza planaren diseinuaren inguruko informazio gehiago Gasteizko Berritzegunean eska daiteke.

5. -ERANSKINAK

1- Prozesuaren balorazioa lurraldeka

Bizkaia - 16	1	2	3	4	5	Guztira
Froga		****	*****	*****		3,1 / 15
<i>Jasotako informazioa</i>		**	*****	*****		3,2 / 13
<i>Emaitzen trataera</i>		*	****	*****		3,5 / 12
<i>H. P. laguntzak</i>	**	*	****			2,2 / 7
<i>H. P. burutzeko denbora</i>	***	**	**	*		2,1 / 8

Gipuzkoa - 22	1	2	3	4	5	Guztira
Froga	*	***	*****	*****		3,1 / 18
<i>Jasotako informazioa</i>	*	*****	*****	*****	*	3 / 18
<i>Emaitzen trataera</i>		*	*****	**	*	3,3 / 10
<i>H. P. laguntzak</i>	*	*	****	*	*	3 / 8
<i>H. P. burutzeko denbora</i>	***		****	**	*	2,8 / 10

Lurraldea zehaztu gabe - 2	1	2	3	4	5	Guztira
Froga		*		*		3 / 2
<i>Jasotako informazioa</i>		*	*			2,5 / 2
<i>Emaitzen trataera</i>			*			3 / 1
<i>H. P. laguntzak</i>				*		4 / 1
<i>H. P. burutzeko denbora</i>			*			3 / 1

Datuen interpretazioa

Fitxetan azaldutako puntuazioen arabera ondoko balorazioa ikus dezakegu:

- Oso jende gutxik eman du balorazio numerikoa
- Atal batzuk ezin dira oraindik baloratu.
- Lurralde guztietan hobetoen baloratu den atala emaitzen trataera izan da. Eta hala ere ez da 3,5 etik pasatu.

2. Ebaluazio diagnostikoa aztertu eta Hobekuntza Plana diseinatzeko prozesua

<i>Araba - 8</i>	Eginda	Pentsatzen hasita	Ez	
Batzordearen eraketa	*****	*	*	
Emaitzak aztertuta		***	****	
<i>Ikastetxeko txostena</i>			*****	
<i>Informazioa nola eman</i>		***	****	
H. P. nola egin		**	*****	

<i>Bizkaia - 16</i>	Eginda	Pentsatzen hasita	Ez	
Batzordearen eraketa	*****	*****	**	
Emaitzak aztertuta	*	*****	*****	
<i>Ikastetxeko txostena</i>		****	*****	
<i>Informazioa nola eman</i>	*	*****	****	
H. P. nola egin		****	*****	

<i>Gipuzkoa - 22</i>	Eginda	Pentsatzen hasita	Ez	
Batzordearen eraketa	*****	****	**	
Emaitzak aztertuta	**	*****	*****	
<i>Ikastetxeko txostena</i>		*****	*****	
<i>Informazioa nola eman</i>		*****	*****	
H. P. nola egin		****	*****	

Lurraldea zehaztu gabe - 2	Eginda	Pentsatzen hasita	Ez	
Batzordearen eraketa	**			
Emaitzak aztertuta			**	
<i>Ikastetxeko txostena</i>			**	
<i>Informazioa nola eman</i>			**	
H. P. nola egin			**	

Datuen interpretazioa

- Ikastetxe gehienetan batzordea eratuta dago
- Ez da denborarik egon datuak aztertzeko batez ere, arazo informatikoak direla medio, oso zaila izan delako emaitzak eskuratzea.
- Beste zereginak (gurasoak informatzea, Ikastetxeko txostena eta Plana egitea) atzeratu dira eta Administrazioak markatutako epeak betetzeko aldi honetan ere denbora falta izango da arazo nagusiena.

PRENTSA OHARRA

SAREAN Elkarreak azaroaren 19an Gasteizko Mendizabala Institutuan XXVII. TOPAKETAK burutu ditu. SAREANEK EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako 178 ikastetxe publiko biltzen ditu eta beren helburu nagusiak, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere harremanak eta elkarlana bultzatzea dira, nagusiki ikastetxeen eta sistemaren antolakuntza arloari dagokionean.

Jardunaldi hauetan nagusiki zuzendaritza esparruan dabilen kideek hartu dute parte, baina beste Topaketetan bezala, guraso, sindikatu, unibertsitateko irakasle eta Hezkuntza Administrazioako kideen ekarpenak ere jaso ahal izan ditugu.

Eskola Publikoak hobekuntzarako tresnak aztertzen XXVII. Topaketetan

Jardunaldietako aztergai nagusia Ebaluazio Diagnostikoaren ondoren Ikastetxeek egingo duten Hobekuntza Plana izan da. Egoera berria bada, gaia antzinatik ari da jorratzen Ikastetxe Publikoetan, Jardunaldi hauetara bertaratu diren 142 partaideek emandako iradokizunek adierazten duten bezala.

Ebaluazio Diagnostikoa lehenengoz egin denez, eskola guztietan zabaldu da emaitzak interpretatzeko prozesu berria, familiei informazioa emateko eta kasuan kasuko hobekuntza Plana osatu eta ohiko praktikan gauzatzeko. XXVII. Topaketa hauetako jardunaren helburua prozesua erraztea izan da, taldean egindako hausnarketa eta adituen parte hartzearen bidez.

Ikastetxeetan Plana arretaz hartu da baina burutzeko behar den denbora, formazioa eta jarraipena eskatzen da

Ebaluazio Diagnostikoa marko zabal batetan kokatzen da, hau da, LOE legearen garapenean, bertan ezartzen baitira ebaluazio diagnostikoa definitzen dituzten arauak eta ezaugarriak.

Dagoeneko europar ingurune herrialde askotan ebaluazio mota hori hezkuntzaren kalitatea hobetzeko formula eraginkor bezala erabiltzen da eta gure eskoletan prest gaude erronka berri horri ilusioz heltzeko baina Administrazioari eskaera batzuk egiten dizkiogu:

- Planari sendo eta lasai ekiteko **denbora**
- Irakasleek behar duten **formazioa antolatzea**
- **Jarraipen erreala** egitea

Hiru baldintza hauek ezinbestekoak jotzen ditugu egingo diren ahaleginak alperrikoak izan ez daitezen. Era berean aukera paregabea iruditzen zaigu klaustroetan

metodologia berrien inguruko eztabaidak bultzatzeko, zeinetatik erabaki garrantzitsuak sortuko diren.

Gaur egungo Eskola Publikoa, lan ibilbide luzearen ondoren prest dago gizartearen eskakizunen aurrean bere onena emateko; orain *Administrazioari dagokio antolakuntza ganoraz eta etorkizunera begira egitea.*

Hizketaldiak

Jardunaldien sarreran Hezkuntza Sailburuordeak *Marian Ozcáriz andereak* bere mezuan behin eta berriro azpimarratu zuen egingo dugun Hobekuntza Planean alperriko burokrazia ez digula ezarri nahi eta lehentasunak zehazten dituen dokumentu praktikoa besterik ez duela izan behar. Honez gainera SAREAN elkartearekin elkarlanean aritzeko duen asmoa berretsi zuen.

Hobekuntzaren bidetik ere, ISEI-IVEIko teknikaria den *Alfonso Caño jaunak* ebaluazio diagnostikoaren prozesua azaldu zigun. Azpimarragarriak iruditu zitzaizkigun erabili diren irizpideak:

- Froga ikastetxeen arteko norgehiagoka ez izatea.
- "Rankina" ekiditzea.
- Bakarrik konparatzea Parekatu daitezkeen errealitateak.
- Froga hau mailako froga ez bihurtzea.

Ebaluazio hau egiten den lehen aldia izanda, ikastetxeetan zalantza eta beldur ugari ageri dira azken hilabeteetan batez ere emaitzen erabilpenari buruz, antzeko egoera batzutan gertatu den bezala, baina entzun dugun azalpenak lasaiago egoteko argudioak eman dizkigu. *Alfonso* azpimarratu zuen kanpoko ebaluaketa ikastetxearen osagarria dela, inoiz ez alderantziz.

Honen ondorengo urratsa ikastetxeetarako sortu (behar) den hausnarketa da. Emaitzak aztertu, gurasoei eman eta Hobekuntza Plana gauzatu. Guzti honen inguruan aritu zitzaizkigun *M^a Luisa García Gurrutxaga anderea* Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaria eta Gasteizko Berritzegunearen Zuzendaria, *Eduardo López jauna*.

Hobekuntza Plana osatzeko aholkularitza

Topaketetan bildutakoak esker onez hartu zuten Gasteizko Berritzegunean egindako lana eta formazioaren barruan *aholkularitza* duen garrantzia azpimarratu zen, mota honetako lanketak ikastetxeen zeregina errazten dute eta guztiz lagungarriak dira eztabaidetarako eta erabakiak hartzeko.

Ikasle guztien arrakasta da eskolaren funtsa, hori lortzeko, orain arte egin diren ahaleginak etorkizunekoekin elkartzeko lanean segituko dugu Euskal Eskola Publikoa osatzen dugunok. Hezkuntza Sailari apostu berbera egitea eskatzen diogu.

SAREAN Elkarte
2009ko azaroa

NOTA DE PRENSA

La asociación SAREAN ha celebrado sus 27 TOPAKETAK el día 19 de noviembre en el Instituto Mendizabala de Gasteiz. SAREAN, que reúne a 178 escuelas públicas de Educación Infantil y Primaria de la C.A.V, tiene como objetivos prioritarios impulsar las relaciones y el trabajo colaborativo tanto entre los centros de su red como entre éstos y la Administración, fundamentalmente en los aspectos que inciden o están relacionados con la gestión y organización de los centros.

La mayoría de participantes en estas Jornadas han sido personas que ejercen funciones directivas en las escuelas, aunque al igual que en anteriores encuentros, han tomado parte también miembros de asociaciones de padres y madres, sindicatos, profesorado de la UPV y representantes de la Administración Educativa.

Las escuelas públicas analizando diversas herramientas para la mejora en las 27 Topaketak de SAREAN

El tema central de debate de las jornadas ha sido el Plan de Mejora que van a diseñar en los centros después de recibir los resultados de la Evaluación de Diagnóstico. Aunque la situación es nueva, el tema no lo es puesto que en los centros públicos se viene trabajando en él desde hace mucho tiempo como lo demuestran las aportaciones de los 142 participantes en las Jornadas.

Puesto que la Evaluación Diagnóstica se ha realizado por primera vez, en todos los centros se ha abierto un nuevo proceso que incluye la interpretación de los resultados, la entrega de información a las familias y el diseño y puesta en práctica del Plan de Mejora de cada centro. El objetivo principal de las 27 Topaketak ha sido facilitar este proceso mediante la reflexión en grupo y la participación de expertos.

En los centros el Plan se ha acogido con interés solicitando para su elaboración el tiempo, la formación y el seguimiento necesarios

La Evaluación Diagnóstica se sitúa en un marco amplio que es el desarrollo de la LOE, ley que marca las normas para realizar la Evaluación y sus características.

Actualmente en muchos de los países europeos del entorno esta clase de evaluación se considera una fórmula activa de mejora de la calidad de la enseñanza y en nuestras escuelas nos encontramos preparados e ilusionados para hacer frente a este reto solicitando de la Administración respuestas a las siguientes propuestas:

- **Tiempo** para desarrollar un plan consistente con tranquilidad
- **Organizar la formación** que necesitan los profesores
- Hacer un **seguimiento real** de los planes

Consideramos que estas condiciones son imprescindibles para que todos los esfuerzos no sean vanos y creemos que es una oportunidad, que no se debe desaprovechar, para debatir sobre nuevas metodologías en los claustros de donde saldrán sin duda decisiones importantes.

La Escuela Pública actual después de una larga trayectoria de trabajo está dispuesta a dar lo mejor ante las peticiones de la sociedad. *A la Administración corresponde abordar una organización con detenimiento y mirando al futuro.*

Conferenciantes:

Como inicio de las Topaketak **Marian Ozcáriz**, Viceconsejera de Educación, insistió en hacernos saber que el Plan de Mejora que vamos a hacer tiene que ser un documento práctico donde se especifiquen las prioridades que tiene cada centro y alejado de toda burocracia inútil. Así mismo ratificó su deseo de profundizar en el trabajo conjunto con la asociación SAREAN.

En relación con la mejora de la enseñanza **Alfonso Caño** Técnico del ISEI-IVEI expuso el proceso seguido para realizar la Evaluación Diagnóstica y nos parecieron destacables los criterios básicos de la prueba:

- No crear competitividad entre centros.
- Impedir "rankings".
- Comparar las realidades comparables, no las que pertenecen a distintos entornos.
- No convertir la prueba en una prueba de nivel.

Dado que esta prueba se ha llevado a cabo por primera vez, en los centros han surgido en los últimos meses muchas dudas y algunos miedos sobre todo con respecto a la utilización de los resultados, como ha sucedido en otras ocasiones parecidas, pero después de esta exposición creemos tener argumentos para la tranquilidad. **Alfonso**, en su intervención insistió en dejar claro que la evaluación externa es un complemento de la del centro, y no al revés.

El siguiente paso a dar por los centros es el de la reflexión y la toma de decisiones con respecto a la interpretación de los datos, información a las familias y diseño del Plan de Mejora. Acerca de todo esto trató la intervención de **M^a Luisa García Gurrutxaga** Directora de Renovación Pedagógica y de **Eduardo López**, Director del Berritzegune de Gasteiz.

Asesoría para llevar a cabo el Plan de Mejora

Las personas participantes en las TOPAKETAK acogieron con agradecimiento el trabajo realizado en el Berritzegune de Gasteiz incidiendo en la importancia de la *asesoría* en los programas de formación ya que supone una gran ayuda para los centros tanto a la hora de reflexionar como de tomar decisiones.

El éxito de todos los alumnos es la razón de ser de la escuela y empeñados en conseguirlo, las personas que apostamos por la Escuela Pública Vasca seguiremos uniendo los esfuerzos realizados hasta ahora con los del futuro. Al Departamento de Educación le pedimos que haga la misma apuesta.

Asociación SAREAN
noviembre de 2009

